

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2015eko urtarrila • 299. alea



ADI!

ZURRUMURRUAK

Mikel fisioterapia

“Etxez etxeko zerbitzuak harrera ona izan du”

Mikel Aranzeta Perez de Heredia fisioterapian litzentziatua da Bartzelonan eta orain osteopatia ikasketak egiten dihardu Donostian. Hilabete batzuk dira fisioterapia zerbitzua zabaldu duela.

Fisioterapeuta izateaz gainera osteopatia ere lantzen duzu?

Bai, osteopatiak ikuspegi zabalagoa ematen du arazoa tratatzerako orduan, gorputz osoari begiratzen zaio. Askotan minaren jatorria ez dago sintomak azaldu diren tokian bakarrik, organoren batek eragindakoa izan daiteke: urdaia, gibela...

Zein dira gaitzik ohikoenak?

Zerbikalgiak, lunbalgiak, ziatikak, orkatilako bihurrituak... Kirola egiteagatikoak batzuk baina minik gehienak akumulatiboak izaten dira, urtetan kasu egin ez zaielako. Adibidez, luzaketak egiteko ohitura gutxi dago baina egunean 20-30 minutu hartzeak gaitz asko eragotzi ditzake.



Elder Unamuno Gandiaga (Borlusa, 1979), 705 Kilojotuzk

Kontsultakoaz gain etxeko zerbitzua ere eskaintzen duzu?

Bai. Jende askorendako erosoagoa da fisioterapia saioa etxean jasotzea. Pertsona batzuek mugitzeko zailtasunak dituztelako, baina beste askok asti faltagatik, edo besterik gabe nahiago dutelako euren etxean egon.

Garestiagoa da?

Ez asko. Bi euro bakarrik. Nik eskuekin lan egiten dut eta ez daukat arazorik mugitzeko.

TARIFAK

Ordubeteko sesioa 25 €
Etxeko zerbitzua 27 €

Ezozibidea 10, 2. ezk. Mug. 617 25 24 90

GURE SEME-ALABAK EUSKALDUNAK AL DIRA?

Zer egin dezakegu gurasook?

KIKE AMONARRIZ

HITZALDIA

Otsailak 10, asteartea
Arratsaldeko 6etan, antzokian



Zuhaitzak landatzeko garaia

San Blas eguneko azokan zuhaitzak erosteko aukera dugu, eta ondorengo egunak landatzeko egokienak dira. Joera zahar-berriak zabaltzen ari dira, etxe ondoko landaketetan nahiz lursail handiko basogintzan. Egun, gure paisaia dominatzen duen pinu beltzaren garaia amaitzera doala ematen du.

Argudio asko ezagutzen dugu betidanik pinua landatzearen kontra: zatarra da, lurra pobretu egiten du; intsektu, txori eta ugaztunentzat, gizakiok barne, toki deserosoa da pinudia. Gainera, moztu behar denean, lursail guztia hankaz gora geratzen da, pinua ez diren beste zuhaitz guztiak hilda, bideak iraulita, garai batean eskulan izugarri batez eraiki ziren hormazko mugak eta terrazak kaltetuta. Eta janaria ekoitz lezaketen baserri-lursail baliotsuen suntsipena dakarte. Zera izaten zen aldeko argudio bakarra: errentagarritasuna, dirua. Baina, orain, pinuarentzako diru-laguntzak murrizteaz batera, laguntza estimagarria izango dugu beste izaki baten eskutik: Sphaeropsis Sapinea izeneko onddo etorkin batek ("ban-



**David Lindemann
(1976, Alemania)**

“Gure paisaia dominatzen duen pinu beltzaren garaia amaitzera doala dirudi”



da marroia”) izugarri maite du insignis edo radiata pinu beltza: Haren kimuetan instalatzen da, lehortu egiten du, eta hazkuntza galarazi. Esaten dutenez, hainbestearinokoa da onddoaren maitasuna, belaunaldi erdi barru Euskal Herria pinudirik gabe laga dezake eta, beharbada. Horrek jan daitekeen zer edo zer landatzera, janaria, lekutatik ekarri beharrea, bertan ekoiztera itzularazten bagaitu: ongi etorri gurera, onddo! Fruitu jangarriak ematen dizkiguten zuhaitzak ugariak dira, eta pixka bat bilatuz gero, hemengo zuhaitz-mota zaharrak aurki daitezke, Abadiñoko San Blasetan, esaterako, onddoek eragindako eta beste-lako gaitzen kontra ondotxo defendatzen direnak. Lursail oso batean bertako sagarrondoa landatzeko, diru-laguntza ematen dute, gainera.

Euskalzaletasunaren alde:



Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Leire Iturbe eta Egoitz Unamuno **Zuzentzailea:** Leire Ginea **Publizitatea:** Egoitz Unamuno **Diseinua:** Iñigo Urribetxabarria **Maketazioa:** Oier Larreategi
Azala: Ferman Oregi **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA



SORALUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gutunak

Soraluzeko
EH Bildu

Autobus zerbitzu berriak

Soraluzeko herritarrok sarri kexatu izan gara garraio publikoaren zerbitzu erdi-purdikoaz. Soraluze ia herri isolatu gisa sentitu izan dugu, inguruko herri handien arteko linea oparoen artean. Gainera trenik ez izateaz gain, Deba, Mendaro eta Elgoibar nahiz eta eskualde berean egon, ia ezinezko misioa izaten da autobusez toki horietara erraztasunez mugitzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ia urtebeteko prozesu parte hartzailea burutu du, Gipuzkoan garraio publikoaren zerbitzua hobetzeko. Eta emaitzak hemen ditugu. Soraluzetarron parte hartzeari esker, martxoaren 2tik aurrera hobekuntza nabarmenak izango ditugu garraio publikoan. Soraluzetik Mutrikurako linea berri bat ezarriko da bi orduko maiztasunarekin, Mendaroko Ospitalean eta Debako Hondartzan geldialdiak egingo dituen goizean goizetik. Eta Eibar zein Arrasaterako lineak indartuta, orduerdiroko maiztasunez izando ditugu autobusak.

(H)Ari Gara.

Euskaltzaleok sagardotegira

“Urdaira” Sagardotegira (Usurbil)



Eguna: Martxoaren 14a, zapatua

Irteera: 12.30ean Estaziotik

Buelta: 21.00etan Hernanitik

Prezioa (bazkaria + autobusa)

· Pil Pileaneko bazkidiak: 35 €

· Ez-bazkidiak: 40 €

Txartelak erosteko:

Arranon, Gaztetxean, Gaztelupen eta Pil Pileanen

Informazio gehiago:

943751304 edo euskara@pilpilean.com

Izena emateko epea: Otsailaren 2tik martxoaren 8ra
Zoragarri pasauko dogu!

Antolatzaileak: Pil Pilean Euskara Elkarte

Bittartetik



Xabier
Alberdi

Oihalezko hautestontziak

Oin dala 2500 urte jaio zan demokrazia Grezian. Denbora hori pasa eta ondiok ezta gure gizartian bere osotasunian zabaldu eta agian ez da sekula osotasunian ezartzerik lortuko. Nere aldetik, utopia horren bilaketan hautu bat egin dot, beste askok gure gizartiaren onurarako beste arlo bazuetan egin daben moduan. Hautu hori, gure herriak bere etorkizun politikua eraikitzeko daukan eskubidea ezartzean datza.

Gure herria anitza da. Hainbat ideologia, pentsakera eta jatorritako pertsonak osatzen dabe, eta danok izan behar dogu lekua alkar errespetatuz eta demokrazia oinarri hartuta. Nik Euskal Herriko gizarte libre baten sinisten dot, Espainia zein Frantzia barruan, edo eta estatu independente baten Europar Batasunaren barruan, baina hori bai, Euskal gizartiak eta berak bakarrik, erabakita. Eredua, nik behintzat, Eskozian daukat. Askatasunian erabaki zebe Erresuma Batuan jarraitzia baina independentziara be jo zeikien.

Horretan dihardu GURE ESKU DAGO dinamikak. Juan zan urtian, 150.000 pertsonatik gora batu ginan Iruña eta Durango lotu zittuan giza katian, horren artean 400 baino gehiago PLAZENTZIATARRAK. Aurten, ekainaren 20xan egingo dogu beste saiakera bat, pertsonalizatutako oihal zatixak josita 175.000 herritarren artian erai-kiko ditugun hautestontzi erraldoi bana ipiniko dogu hiriburu bakoitzian. Horretarako 500 PLAZENTZIATARREN laguntza lortu nahi dogu. Bestiak beste, zure laguntza, irakurle.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30ETATIK HURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Javier Alberdi

Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carniceria
autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

“Gurasoen kezkak argitzen ahaleginduko gara”

Kike Amonarriz (1961, Tolosa)
Umorista, telebistako aurkezlea eta hizkuntza gaietan aditua.



Kike Amonarriz. Iturria: Argia.

Kike Amonarrizek otsailaren 10ean hitzaldia eskainiko du herrian: Gure seme-alabak euskaldunak al dira? Zer egin dezakegu gurasook?. Euskararen aholku batzordeak antolatu du hitzaldia, gurasoek eta seme-alabek hizkuntzaren inguruan duten harremanaren inguruan jarduteko, “Kikerekin batera elkarrekin gaiaz berba egin eta zalantzak argitzen ahalegintzeko”.

Zeini zuzenduta dago hitzaldia?

Hitzaldia, batez ere, guraso euskaldunen-tzat da, baina euskararen inguruan interesa duen edozeinentzat ere baliagarria izan daiteke. Eta gazteren batek infiltratu nahi badu, gurasoek gero zer esango dieten espiatzera edo helduei errieta egitera, benetan ongi etorria izango da.

“Erizain batek kontatu zidan Soraluzeko pasadizoa”

Zela da Soraluzeko mutikoaren adibide hori...

Duela hilabete batzuk, Mendaroko ospitalean izan nintzen hitzaldi bat ematen, eta bertako erizain batek Soraluzen gertatutako pasadizo bat kontatu zidan. Erositako prezioan kontatuko dizuet. Haur batzuk jolasean ari omen ziren. Inguruan, gurasoak kafea hartzen ari ziren. Eta guraso hauetako bat ohartu zen haurrak erdaraz ari zirela. Mahaitik altxa, inguratu, eta

zera esan omen zien: “Haurrak! Euskaraz egin!” Eta haurretako batek: “Aizu! gurasoetara ari gara jolasten!”. Euskal Herriko edozein bazterretan gerta zitekeen baina Soraluzen gertatutakoa omen da. Nolanahi ere, Italian dioten bezala “si non e vero, e ben trovato”.

“Klabe nagusietako bat ilusioan eta motibazioan dago”

Ezintasun sentimendua oso zabaldua dago gusaroen artean.

Ezintasuna batzuetan, ez hizkuntzari dagokionez bakarrik... Eta askotan hori baino gehiago kezkak eta zalantzak izaten dira: dakidan euskara kaxkarra erabiltzea ona al da? Gaizki esaten dituenak zuzendu egin behar al dizkiot? Zer egin behar dut erdaraz ari bada? Horien, eta bertaritzen direnek ekar ditzaketan galdera eta kezken inguruan jardungo gara.

Zein dira gakoak gaztetxoek euskaraz egin dezaten?

Hasteko, esango nuke kezkak sortzen dituguten gaiak ondo identifikatu behar ditugula eta zertaz ari garen jakin. Zenbait kasutan “arazo”tzat jotzen dena ez baita horren arazo... Bestalde, esango nuke klabe nagusietako bat ilusioan eta motibazioan dagoela, eta etxean transmititzen diren eta erakusten diren balioetan. Baina ezin dugu ahaztu gure egoera soziolinguis-

tikoa oso konplexua dela, familia mota asko dagoela, eta ez dagoela errezeta bakarra. Eta ondo bereiztu behar dugu gurasoek zer egin dezaketan eta zer ez.

“Erabilera datuak jaitsi izana, bada kezkatzeko eta aktibatzeko arrazoia”

Hemen datuek beheranzko joera dute...

Lehen esaten genuena, egoerak oso anitzak dira Euskal Herrian. Eta ondo aztertu behar ditugu leku bakoitzeko datuak eta errealitateak, interpretazio okerretara ez iristeko. Nolanahi ere, erabilerean datuak jaitsi izana, bada kezkatzeko eta aktibatzeko arrazoia.

Ikastolen sorrera garaiko testigantza asko ikusi ditugu azkenaldian telebistan. Iraganean egindakotik ere ikasi behar genukeela...

Nik uste iraganari begira galdera funtsezko bat egin behar dugula: nola liteke euskara bezalako hizkuntza bat, mendez-mende iraun eta guregana biziberriturik iritsi izana? Uste dut klabea gizarteraren atxikimenduan eta euskararen alde mugitu diren minoria aktiboetan dagoela. Hor dugu, etorkizunera begira, bizirik mantendu eta indartu behar dugun sua. Beste kontu bat da su hori hauspotzeko zer behar den.

IZAGUIRRE
Igeltseritza

943 75 11 62 • 649 867 289

MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Oztopo aktitektonikoak ezabatzeko plana



Errabal kalean egokitzapenak egiteko asmoa du Udalak.

Joan zen astean aurkeztu zuen Ikersare enpresak Udalaren enkarguz egin duen irisgarritasun-planaren zirriborroa. Bertan herriko ibilbide nagusian dauden oztopo arkitektonikoak identifikatu eta hauei eman dakizkiekeen irtenbideak proposatu dituzte 27 fase bereizten dituen txostenean.

Lehentasunezko guneak

Lehentasunezko aktuzioen artean jasota daude honako hauek: Gabolats kaleko aldapan zoru maila bakarra ezartzea, Estaziñoko gunea berrantolatzea, Santa Anatik saihasbidera igotzeko igogailua jartzea... Udaleko ordezkarien esanetan "txostenean jasotako proposamen guztiak hirigintza-planaren barruan eztabaidatu eta erabaki beharko dira orain". Dagoeneko aurtengo aurrekontuan jasoden ekintzetako bat Errabal kaleko geltokitik kiroldegira bitarteko bidean zoru maila bakarra jartzearena da, nahiz eta diru-laguntzen mende egongo den lan horiek egitea. Azkenik, Udalak adierazi du Sagar Erreka auzoa ere planean txertatuko dela, aurkezpenean herritarrek hala eskatu eta gero. Txostena udaletxean dago eskuragai interesa duen edozeinendako.

FotoNotizia



Txooootx! Herriko sagardo berria!

Hainbat sagardogilek iazko udazkenean ekoiztutako sagardoa botilaratzen dihardute egunotan: Argaten, Boskoittin, Ezozin, Mendotzen, Iturbe zaharren, Barrenetxen... Produktio txikiak dira denak, etxean kontsumitzeko eginak, baina guztira 4.000 litro inguru ekoitzi dira herrian. Argazkia: Arkaitz Arana.

Motzean

Iker Aldazabal, EAJren alkategaia

Soraluzeko EAJk eguaztenean jakinarazi zuen Iker Aldazabal izango dela maiatzeko udal-hauteskunderarako alkategaia. Markel Olano EAJ-PNV-ren Gipuzkoako diputatu nagusigaiarekin batera Iterga eta Oruesagasti enpresak bisitatu zituzten. Biek ala biek industriak herrian eta bailaran duen garrantzia, eta ondorioz erakunde publikoen aldetik enpresak babestu beharra azpimarratu zuten. Aldazabalek Bilduk "enpresak zerga-iturri gisara bakarrik ikustea kritikatu zuen" eta aurreratu EAJk Udalean garapen ekonomikorako batzordea sortzeko asmoa jasoko duela bere programan: "instituzioetako ordezkariarekin batera enpresa, merkataria eta ekintzaileak batuko lituzkeena, elkarlanean aktibitate ekonomikoa sustatu eta lanpostuak sortzeko".



3.969 lagun bizi gara herrian

Jaiotzek eta kanpotik herrira etorritako pertsona kopuruak gora egin badute ere, heriotza kopuruak eta herritik kanpora doazen pertsonen kopuruak handia izaten jarraitzen dute. Iazko urtearen amaieran 3.969 pertsona zeuden erroldan inskribatuta, 2013an baino 23 gutxiago. Deigarria da jaiotza kopurua bikoiztu egin dela: 2013an 16 jaiotza erregistratu ziren, 2014an 34. Erroldako datuen arabera iaz 106 pertsona izan ziren herrira bizi izatera etorri zirenak, gehiengo (%61) espainiarra ez den beste nazionalitate batekoa da. Espainiarraz gainera, beste 29 nazionalitate ezberdinetako herritarrek bizi dira herrian, marokorak gehienak.

sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

mug. 635 71 34 08



Konposta banatuko dute auzo-konpostagunean

Auzokonpostagunean egindako konposta banatuko dute bihar, 12:00etan herritarren artean. Lau konpostagailu jarri ziren iazko ekainean Etxaburuetan eta horietako bitan hasi ziren hamabi familia konposta egiten. Irailetik hondakinak heltze prozesuan egon dira orain arte. Jakinarazi dute bizi-lagunek dutela konposta hartzeko lehentasuna, baina asko dagoenez, nahi duten herritarrek jaso ahal izango dutela. Aurten beste hiru auzo-konposta gune jarriko dira herrian.



Administrari lanpostua eskaini du Udalak

Gizarte zerbitzuetarako administrari lanpostua eskaini du Udalak, aldi baterako eta lanaldi erdian. Lanpostua eskuratu nahi duenak Lanbiden izena emanda egon beharko du langabetu moduan, goi mailako batxilerra, II. mailako LH edo maila handiagoko ikasketak izan beharko ditu, EGA titulua edo baliokidea, informatikan ezagutzaduna izatea eta Soroluzen erroldatuta egotea eskatuko zaio. Izen-ematea udaletxeko bulegoetan egin behar da, otsailaren 6a baino lehen (egun hori barne), curriculum vitae-a eta lan-bizitza dokumentuak aurkeztuta.



Zarautzen festa, jolasa ardatz hartuta

Amarauna sareak, EHko aisialdi taldeen arteko sareak, "Jolasaz hezi kalea bizi!" jaialdia antolatu du otsailaren 21erako, Zarautzen. Ume eta gazteen aisialdian, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta balioen hezkuntza sustatzeko lan egiten duten aisialdi talde, eragile eta elkarteek osatzen dute Amarauna eta sareko kide da Kukumixoko aisialdi taldea ere. Jaialdiarekin, sarea ezagutarazi eta proiektuak zabaltzearekin batera, hezkuntza ez formalari dagokion garrantzia eman nahi diote: "arlotan egiten dugun lana aisialdiko ekimenak izatetik haratago, hizki larriz idatzitako hezkuntza ere badela aldarrikatu nahi dugu". Jaialdia elkarte eta eragileen arteko topagunea izatea ere nahi dute, eta herrietako ume eta gazteak presente izan nahi dituzte, familiek lagunduta".



Amarauna sareko kideak.

Kalean jolastu, bizi eta hezi

Jolasaren aldarrria egin nahi du Amaraunak: "jolas gure jardunaren oinarria da, haurtzaroren kulturaren funtsa eta ikasketa-prozesuaren motorra dela uste dugu, mundua behatu eta harremanak sortzeko ezinbestekoa. Baina jolasari duen balioa kentzearekin batera kaletik atera dute jolasa. Leku itxi eta babestuetan jolasten dira haur eta gazteak. Beraz, berreskuratu nahi dugu kalea, jolasarentzat, eta, ondorioz, herritarrentzat, kalea gu garelako eta bertan sortzen diren harremanak".

Kalean jolastu, bizi eta hezi

Jolasaren aldarrria egin nahi du Amaraunak: "jolas gure jardunaren oinarria da, haurtzaroren kulturaren funtsa eta ikasketa-prozesuaren motorra dela uste dugu, mundua behatu eta harremanak sortzeko ezinbestekoa. Baina jolasari duen balioa kentzearekin batera kaletik atera dute jolasa. Leku itxi eta babestuetan jolasten dira haur eta gazteak. Beraz, berreskuratu nahi dugu kalea, jolasarentzat, eta, ondorioz, herritarrentzat, kalea gu garelako eta bertan sortzen diren harremanak".

Soroluzetarrak jolastera animatu nahi dituzte

Kukumixoko kideak jaialdiaren antolakuntzan murgilduta daude eta herriko guraso, ume, senide, gazteak... animatu nahi dituzte eurekin batera egun pasan joatera. Joan etorria autobusean egiteko aukera eskaini dute, Soroluzetik bertatik goizeko 11:00etan abiatuta eta buelta 19:00etarako zehaztuta. Interesatuak Pil-pileanean edo Iratxo goxo-dendan eman dezakete izena gaur hasi eta otsailaren 19ra bitartean, nagusiek 20 euro eta umeek 10 euro ordainduta (bazkaria eta autobusa barne).

	Gaztelekuan	Gaztetxean
EGITARRAUA	12:00etan: Gunearen irekiera: puzgarriak, azoka, jolas librea eta tailerrak	19:00etan Kalejira musikatua Gaztelekutik
	12:15ean: Irrien Lagunak klubaren ikuskizuna	21:00etan Kontzertuak: Uluka Lau Katu Bidelapurak Atxurre
	14:00etan: Bazkari herrikoa	
	16:00etan: Bertso-Showa eta ipuin kontalaria	
	17:30ean: Erromeria	
	19:00etan: Gunearen itxiera	

TABERNATOUR ZIRKUITOA



OTSAILEKO SARIA

- 2 gau Formigalen, 4 izarreko hotelean.
- 150€ko deskontua Benito Anaiak altzaridendan.
- Haginen garbiketa Elizpe hortz klinikan.
- 50€ko bonoa Lilura estetika zentruan.

URTARRILEKO IRABAZLEA:

Roberto Retolaza



ZURRUMURRUEN AURKAKO TAILERRA

Badakizu etorkinek...

Zurrumurruen kontra egiteko trebatzen jardun dute hainbat herritarrek hiru astez, zeregin neketsua izan daitekeena norbere buruari eta besteei on egiteko ariketa modura erabiltzen ikasteko.

Herrian etorkinen inguruan zabaltzen diren zurrumurrueri aurre egiten trebatzea izan da urtarrean zehar egin den tailerraren helburua. Alkarrekineko gizartegintzako taldeak antolatu du eta herrian arlo horretan eta bestetan diharduten hainbat pertsonak parte hartu dute bertan: jubilatuek, gizarte zerbitzuetako teknikariek, Caritasekoek, irakasleek, aisialdiko hezitzaileek, zinegotziek, kazetariak... Partaidetza eta edukien aldetik oso tailer aberasgarria izan dela aipatu dute parte hartzaileek.

Aurreritzi negatiboak

Zurrumurruak mundua modu errazean interpretatzeko tresna direla azaldu zuen Xabier Aierdi soziologoak: "alemaniarrak hotzak, italiarrak seduktoreak... Etorkinen kasuan aurreritzietan oinarrituta ezaugarri negatiboak egozten zaizkie. Kurioso da ikustea nola gaur eguneko etorkinengatik esaten diren kontu berberak esaten ziren lehenengo etorri zirenengatik ere: ez dutela integratu nahi, delikuentzia gehitzen dutela, lana kentzen digutela... Pentsatzen dugu etorkin kopurua neurrigabe hazten doala, baina ez da egia, etorkin kopurua lan-eskaintzak erregulatzen du. Orain emakumeendako lana dago zaintzan, ez besterik". Zurrumurruen aurrean patxadaz eta umorez jokatzeko gomendioa egin zuen Aierdik.



Tailerrean parte hartu duten herritarretako batzuk, umore giroan.

"Zurrumurruen aurrean patxada eta umorea"

Etorkinak mugitzeko arrazoiak

Zabalduen dagoen ustearen kontra, SOS arrazakeriako Agustin Unzurrunzagak azaldu zuenez, herri batean etorkin gehiago ala gutxiago izatearen faktore nagusia ez dira prestazio sozialak. "Ekuaizio horren arabera, laguntza eta lan-sari handienak dituzenez gero, Gipuzkoak izan beharko luke estatuko etorkin kopururik handiena duen lurraldea, baina

hara non, tasarik txikienetakoa duena da. Zergatik? Etorkinak harremanengatik mugitzen direlako batez ere, edo lan-eskaintzagatik, izan legala edo ilegal. Horregatik daude herri batean etorkin gehiago eta bestean gutxiago, familiarakoak edo lagunak dituztelako". Sozialuzeren kasuan ere arrazoi nagusiak horiek izan daitezkeela ondorioztatu zuten partaideek baita, egoera txarrean dauden eta alokairu baxua duten etxebizitzaren eskaintzarekin dagoelako ere.



Taldeko ariketa praktikoa, eztabaida simulatuz.



Xabier Aierdi soziologoa lehenengo saioan.



“Gaur etorkinei murrizten dizkiegun eskubideak guri murriztuko dizkigute bihar”

Rafael Crespo

Xarxa Antirumors (Bartzelona)

Rafael zurrumurrueen kontrako mugimenduko kidea da eta hiru hasteko tailerraren azken saioa dinamizatu du. Hiru orduko saioa luzatu zaion arren inork ez du alde egin.

Zurrumurrua izebergarekin konparatu duzu.

Bai. Zurrumurrua izebergaren punta baino ez da, horren atzean gauza asko ezkututzen dira: arazo sozialak, herritarren beldurrak eta aurrerritziak, kontrol politikorako estrategiak, morboa... Goi-zean jaikitzen garenetik gauean oheratzen garenaraino zurrumurruz inguratuta gaude. Birus baten modukoa dela ere esan dezakegu, zabaltzeko duen moduagatik eta ona da bakunatuta egotea.

Zergatik komeni da bakunatzea?

Zurrumurru negatiboek kalte handia eragiten dute gizartean. Socrates kristo aurreko bosgarren menderako konturata zegoen horrekin, eta, adibidez, nazien propaganda buruak ere bazekien hori: “errepikatu ezazu gezur bat behin eta berriz eta azkenean egi bihurtuko da”. Zurrumurrueen helburua jendea kontrolatzea da. Lehenengo gutxiengo baten inguruko zurrumurruek zabaltzen dira, eurak kontrolatzeko eta, gero, gizarte guztiari ezartzen zaizkio.

Adibiderik baduzu?

Bai, noski. Espainian osasun prestazioa jasotzeko baldintzak gogortu egin dituzte, etorkinek eragiten omen duten neurrigabeko gastua mugatzea ei da helburua. Baina hara non, legeari ohar txiki bat erantsi dioten eta orain sei hilabete kanpoan egin dituen espainiarrak ere ukatzen zaion prestazioa. Zurrumurruei kontra egitea geure buruari laguntzeko modu bat da, ze orain etorkinei murriztuko dizkiegun eskubideak guri murriztuko dizkigute gero.

Zergatik dugu etorkinekiko ikuspegi negatiboa?

Etengabe euren inguruko aurreritzi eta zurrumurruek zabaltzen ditugulako. Sinestera iristen gara etorkinek kalte egiten diotela gure ongizate-sistemari, baina justu eurak dira sistema mantentzea posible egiten dutenak: gure ume eta nagusiak zainduz, bitartean guk ikasteko edo beste lan batzuk egiteko denbora izan dezagun. Hala ere, etorkinekiko gorrotoa bezain kaltegarria da gehiegizko miarmentua. Pertsona arruntak dira, gu bezalakoak.



Lourdes
Pastoriza
Kotka (Finlandia)

Finlandian ere zakurrak oinutsik

Finlandian 5,4 milioi biztanle bizi dira eta 80. hamarkadaren bukaeran hasi ziren etorkinak iristen, batez ere, Txiletik etorri ziren errefuxiatuekin. Etorkin kopuruak gora egin arren, Europar atzeritar gutxi den herrialdea da. Europar Batasunekoak, familia arteko loturaren bat daukatena, ikasketak direla-eta etorritakoak, errefuxiatuak, lan egiteko baimenik behar ez dutenak: ikertzaileak, kirolariak, aditu espezializatuak, *au pair*-ak eta beste batzuk.

Ni neu Kotka izeneko hirira (56.000 biztanle) etorri nintzen 2007an, lan bila, batez ere, neure curriculumerako atzerrian lan-ekarmentua lortu nahi nuelako.

Europar Batasunekoak izan arren, ez zuten nire lan-ekarmentua kontuan izan, eta hutsetik hasi behar izan nuen: atzerriko hizkuntza irakasle, interprete eta itzultzaile, eta proiektu-koordinatzaile lanetan (Espainako erizainei lana eskaintzen). Lan egin ahal izateko Suomierazko titulua atera behar izan nuen. Zoritxarrez, krisialdia dela-eta, gero eta lan gutxiago daukat, beraz, pentsatzen dihardut, agian, badela garaia neure herrialdera itzultzeko.

Sekulako esperientzia izan bada ere, eta egin dudana guztiaz harro banago ere, ohartu naiz atzeritarrentzat ez dela erraza profesionalki mailaz igotzea. Gehiago eskatzen dizute eta Suomiera menperatzen ez baduzu oso zaila izango zaizu lana lortzea, eta lana lortu arren, ez dizute hain erraz gizarte segurantzako txartela emango... Gainera, kanpoan Finlandiari buruz uste dena ez da guztiz egia, denetarik dago: eskola porrota, lan egin nahi ez duen jendea, arrazakeria, alkoholismo-tasa izugarria, emakumeen aurkako indarkeria, burokrasia... Baita alderdi onak ere. Lagun suomitarra betiko da, beste hizkuntza bat ikasteko aukera izango duzu, zergak eta isunak ere irabazien arabera izan daitezke, integrazio planak dauzkate atzeritarrentzako, etab. Leku guztietan bezala Finlandian ere zakurrak oinutsik.

Azken datuen arabera 25 nazionalitate baino gehiagotako herritarrak bizi dira herrian. Beste kulturen ezagutza zenbatekoa den galdetu diegu herritarrei.

Ze beste kultura ezagutu dituzu?



Ibon Basaldua

Azken aldian harreman handia izan dut marokoarrekin eta musulmanen bizimodua ezagutzeko aukera izan dut. Batzuk erlijioarekin zorrotzagoak dira beste batzuk baino. Familiako harreman estua eta elkarri ematen dioten babesak deitu dit atentzioa.




Arantxa Plazaola

Neretako aberasgarria da beste nazio eta kulturetako jendea izatea herrian. Nik senegaldarrekin izan dut harremanik handiena eta nagusiendako eta gurasoendako duten errespetua izan da miresmena sortu didan baloreetako bat.



Ainhoa Lete

Azken batean denok antzekoak gara eta han edo hemen bizimodua aurrera ateratzea da helburua. Ni kultura kataluniarrak erakartzen nau, ikusten dudalako gu baino helduagoak direla eta indarkeria erabitzeko beharrik gabe, elkarrekiko errespetuan aurrera egiten dihardutelara.



Ekaitz Uzin

Txilen pasatu nuen urtebete eta hango bizitzeko modua ezagutzeko aukera izan nuen. Jendearekiko harremanetan gu baino zabalagoak dira eta musikarekiko duten erlazioa ere ezberdina da. Han instrumentuak hartu eta kalera ateratzen ziren edozein momentutan musika jotzera.

Lehiaketa

Galdera

Zein izan da Soraluzen egokitu den loteriako saririk potoloena?

- 220 euro dezimoko
- 2000 euro dezimoko
- 5000 euro dezimoko

Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea atera eta hurrengo barixaku eguerdian egiten dugu.

Deitu **943 75 13 04** edo e-posta bidali **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.

Saria:


Gaztelupen bi lagunentzako jatordua

Aurreko aleko erantzuna

Cristina Laskurain

Irabazlea

Demetrio Galan



Javier Alonso Zelaeta
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA
 K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak
 Estukoak
 Fatxadak
 Eskilarak eta patioak
 Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030
 Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea



Mikel
Hernandez

Herri kirolak herrixan

Betidanik egon da herrixan herri-kiroletarako zaletasuna, baina gehixenetan kanpoko jendia ekarri izan da probetan aritzeko. Azken urtietan, asuntua pizten hasi dala emoten dau: Ezoz eta San Andres auzokuen arteko desafixuak adibidez, Gaztetxetik antolatu izan dittuenak Gaztañerre egunerako edota giza proban aritu ziran neskak be espektakulo ederra emon zeben. Hortaz aparte, lagun arteko desafixu eta apostu ugari egon dira. Herritar batzuk beste herri batzutan topatu dabe herri-kiroletan jarraitzeko modua, eta beste batzuk ondiok ez dogu topatu. Neri aizkolaritza gusatzaten jata eta oin dala urtebete hasi nintzan nere kontura praktikatzen. Beste batzuk nere moduan egon ahal dirala pentsatzen dot.

“20ko kuadrilia batu gara eta laster batzar bat egittia da gure asmua”

Guzti hori kontuan hartuta, Soraluzen herri-kirol taldia sortzia pentsatu dogu. Horretarako, banaka batzuk alkartu ginan eta zaletasuna zeuken batzueri deitu dotseu azken egunotan. 20ko kuadrillia batu gara. Gure lehen asmua laster batzar bat egittia da, eta danon artian kirol aukerak eta proiektuan norabidia erabakiko dogu. Lehenengo plazaratzia Kirol Eguna izan leikela pentsatzen dogu. Parte hartzeko: 605705378 Arkaitz.

Joseba Ramos bi aldiz txapeldun

200 kiloko pisua duten lau erroberadun ‘quad’ motor-lehiaketetan, “Zona norte” sailkapenean, onenen artean onena izatea lortu du Joseba Ramosek (Soraluze, 1977). Iraupen eta quad kros lehiaketetan aritzen da pilotu soraluzetarra eta bietan lehena izatea lortu du. “Amestutakoa lortu ondoren” eta esfortzuaren eraginez gorputzean dituen lesioek, urtebeteko atsedena hartzera behartu dute; hala ere aipatu du entrenatzen jarraituko duela eta aurtengo denboraldian pilotuen bozeramaile lanak egingo dituela “lasterketak hesiaren beste aldetik bizi ditut”.



Iraupenean Arnedon korritutako azken lasterketa.

18 urteren ondoren Soraluze Saria ez da korrituko

Otsaileko azken domekan 18 urte beteoko zituen Soraluze Txirindularitza Sariak baina antolakuntzak taldea desegitea erabaki du, eta aurtan ez da korrituko. Juan Mari Oregik azaldu duenez “ondorengorik ezean, bukatu da txirindularitza soraluzetarrentzat”. Aipatu du Soraluzekoa ez dela salbuespena, orokorrean herri askotan gertatu dela beherakada: “gero eta zailagoa baita lasterketak antolatzea”. Ibilbidea hasi eta bukatu, “egindako lanaz harro” daudela gaineratu du.

Gallastegi eta Oregi iaz, sari-banaketa ekitaldian.



Gaur Aranen: Atxotegi- Bolinaga vs. Larrañaga-Murgiondo

Euskal Herriko ohorezko ligan lehiatzen diharduten Atxotegik eta Bolinagak sailkapeneko buru zirela ekin zioten txapelketa jokatzeari. Azken neurketa, berriz, ez zitzairen nahi bezain ondo atera eta 22-6 galdu zuten usurbildarren aurka. Ondorioz, Usurbilkoak aurea hartu diete eta bigarren sailkatu dira. Gaur neurtuko dira aurrez-aurre Azpeitiko pelotariaren kontra, 20:00etan Aranen. Aurretik Aldape buruz-burukoan arituko da Oiartzungo ordezkariaren kontra.



Bolinaga eta Atxotegi ohorezkoan bikote.

Jatearen plazera. bertatik bertara

ogibitartekoak eguneko menua
asteburuko kartxa razioak

Erreserbak: 943 75 20 16

JUAN MARI
ARRXINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

ESKERRIK ASKO PLAZA MERKATUARRA
GUGER ULANDAKO KONPLANTZAGETIKU

Disko-jaiia, Ingo al deu?, Rocka eta jam-saioa aratosteetan dantzagarri



lazko jaialdiko une bat.

Otsailaren 13an Euskal Aratosteetako pertsonaiek jaurtiko dute, beste behin, aratosteetako suziria. Argazki maratoiarekin ekingo diote festa ospatzeari eta, jarraian, kalejira koloretsua egingo dute Mielotxinek, Zaldiko-maldikok eta Ziripotek lagunduta. Kiroldegian joko du goia festak, ospakizunerako espreski antolatu duten ekitaldiarekin eta, os-

tean, txokolate beroa dastatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Zapatu goizean herriko txikiak izango dira protagonista, 12:00etatik aurrera karpan egingo diren jolasetan. Buruhandiek berotuko dute bazkalostea eta dantza ikuskizuna 18:30ean hasiko da, kalerik-kale. Ingo al deu? taldeak, Akelarre txarangak eta musika eskolako rock taldeen kontzertuak asetuko dituzte ondoren, dantzazaleen gogoak.

Martitzenerako play-backa eta gaiteroak

Lehen hezkuntzako umeak daude martitzenean ospatuko den play back lehiaketan parte hartzera gonbidatuta. Sorluzeko gaiteroek ere kalejira egingo dute, eta, ostean, Gaubela taldeak emaldia eskainiko du karpan. Gauean gaztetxean inprobisazioari lekua egin nahi diote eta jam-saioa antolatu dute musikazale eta musikari guztientzat.



Bertso-eskolako ikasleak

Kopla kantua, gogo kantua

Santa Ageda bezpera laster kalean jende ugari makilak hartu eskuan eta urtengo gara kantari.

Kopla ta soinu urtengo gara musika eskolarekin ingurukoak etxeratzeko irripar zabal batekin.

Bertso-eskolan umore ona eukitzen dogu soberan eta limosna txiki bat ere etorriko da primeran.

Bezpera hortan aspaldikoa da eskerako ohitura ez dugu koska egingo eta lasai hurbildu zakura.

Santa Anan hasi kalejira ta tipi-tapa kalez kale sei terdietan daukagu zita hurbil zaitez, kantuzale!

Doinua: Dios te salve

“Siddhartha” liburuaren euskarazko itzulpena aurkeztu dute Trebiñok eta Lindemann-ek



Irati eta David “Siddhartha” liburuarekin.

Martitzenean aurkeztu zuten prentsaurrean Irati Trebiñok (Sorluze, 1978) eta David Lindemann-ek (Alemania, 1976) Hermann Hesse idazlearen “Siddhartha” (1922) liburuaren euskarazko itzulpena.

Alemanetik euskarara itzuli dute eta Erein eta Igela argitaletxe-tako Literatura Unibertsala saileko beste hiru itzulpenekin batera eman dute ezagutzera. Itzultzaileek azaldu dutenez “Siddhartha” antzinako Indian kokatuta dago, eta gazte baten bilaketa du ardatz, Buda historikoaren biografia eredu: nola bizi behar da? Nola eskuratu zoriontasuna? Liburu horrek izandako arrakastak erakusten du gai hauek betierekoak direla”. Itzulpena talde-lanaren emaitza izan dela gehitu dute: “David arduratu da alemanerazko testua ahalik eta fidel-tasun handienaz euskaratu eta Hesser berezko estilo hori mantentzeaz, eta Irati arduratu da euskarazko irakurlearengan pentsatzeaz”.

Elizpe
Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia (kustodia)
- Implantak

DOHUAREN BERRIKUETAK
FINANTZAKETA ZURE NEURRIA
KONPROBATORIO GABEKO AURERANTZUA

MUTUALIA, PADI (Baumen arretarako hortz programari)

Tel: 943 75 25 67
Elizburu 3 beheko, Sorluze

AURREZTU ENERGIA

Berotu ebrea
BIOMASA ETA
EGURREZKO
galdarekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

Zorion agurrak



Alain Lopez
Urtarrilan 20xan 9 urte!
Zorionak polittori,
asko maitte zaittugu!!
Muxu asko eta besarkada
haundi bat, familiarian partetik!



Peio
Zorionak Peio, 9 urte!
Muxu potolo bat etxeko
mutil haundixenari!
Segi horren alai eta jator,
etxekuen partetik!



Unax Rodriguez
Urtarrilan 26xan 7 urte!!!!
Zorionak Oihane, Naia,
aitabxo eta amabxon partez.
Muxutxo handi bat!



Enara eta Amaia Agirre
Urtarrilan urtiak bete ditzuzelako,
jaso muxu pila eta besarkada bero
bat,
maitte zaittuztegunon partetik!



Sabina Eizagirre eta Nahia Beristain
Zorionak, urtarrilan 25ian eta 14an
68 eta 5 urte betetzen ditzuzelako.
Ilargiraino eta bueltan maitte zaittuztegu!
Etxekuak, milaka muxu!



Iker De Los Santos Perez
Urtarrilan 2xan 8 urte
Zorionak txapeldun!!
Muxu asko etxekuen partez



Goizane Plata
Urtarrilan 13an 12 urte
Zorionak potxola!!
Muxu pila eta besarkada
potolo bat, etxekuen partez!!



Miren Mendia
Abenduaren 10ian 5 urte!
Zorionak etxeko sorgin
txikitxari atzerapenez,
etxekuen partez!



Nerea Atxotegi
Urtarrilaren 18an 16 urte
Zorionak Nerea!! Ondo ondo
pasau zure eguna eta segi
oin arte bezain jator!! Muxu
haundi bat etxekuen partetik.




Ander eta Naroa Agirregomezkorta
Otsailaren 9xan eta 8xan 4 eta 2 urte!
Zorionak eta patxo haundi bat etxeko txikitxueri,
familiarakuen partez.




Daina Rico
Abenduaren 5ean 26 urte
Zorionak zure emaztearen
eta familiararen partez. Maite
zaitugu.



Imanol Agirre Arrillaga
Urtarrilaren 20an 11 urte
Zorionak eta oso ondo pasa
eguna. Muxu haundi bat
etxekoen partez!



Hodei Valdivieso Argarate
Urtarrilaren 9an 11 urte
Zorionak eta patxo haundi
bat etxekuen partetik.



Diego Rizzo Molina
Otsailaren 5ean, 5 urte
Zorionak maitea!
Muxuak zure guraso eta
amonaren partez.

Jaiotakoak eta hildakoak



Iker Yeray Gonzalez Centeno
Ikerne Martin Cuenca
Nahia Mazorriaga Rodriguez



Elisabete Uzin Errazti
Pedro Maria Fernandez Ariznabarreta
Nieves Laskurain Arizaga
Maria Angeles Elizburu Gallastegui



MARIA ANGELES ELIZBURU GALLASTEGUI
1929-03-30/2014-12-15

*"Plaza Zaharrear,
hondarbeltzen,
beti gure aldamonean.
Goxoki hartu izan gaituzu,
zure magalean
zure kantuaren doinuak
iraungo du gure bihotzean."*

Etxekoak



Iturria: "Harpasuak" Kontrargi.

Karreristak, 1974. urtean

Herrian tradizio handia izan du txirrindularitzak. Hainbat urtetan *Sociedad Deportiva*-ren bitartez antolatu ziren herrian txirrindularitza lasterketak: *Gran Premio Placencia de las Armas* saria, beranduago *Soraluze Saria* bihurtuko zena, eta San Andresera igoera esaterako. 90.en hamarkadatik aurrera Juan Mari Oregi gidari izan duen txirrindularitza taldeak jarraitu du iaz taldea desegin zen arte.

Argazkian, ezkerretik eskumara:

J. Alonso, Iñaki Ugarteburu, Adolfo Alcorta, Jose Luis Bollar, Manolo Badiola, Alberto Lopez de Etxezarreta.



JOSE LUIS ARIZNABARRETA AIZPIRI
1935-2014

*"Eskerrik asko bihotzez momentu gogor hauetan
maitasuna adierazi diguzuen guztioi"*

Etxekoak



CARMEN LARRAÑAGA FERNANDEZ
1929-2014

*"Amets luze luze batean naiz amildu.
Ez esna, arren, bertan nahi dut"*

Senideak eta etxekoak

2015EKO
URTARRILEAN...

OSTRAS...
NOIZTIK DAGO
HARRI HAU HEMEN?

BUFF
SINATRA...



Herrian gertatzen denaz ENTERATZEKO



plaentxia.eus
SORALUZETARRON KOMUNIKAZIO PLAZA



Deskontuak

Bizikale elkarteko komertzioek deskontuak eta eskaintza bereziak eskainiko dituzte hilero. Eskaintza baliagarria **urtarrilaren 31tik otsailaren 15era** arte.

MARISA

**Kolorea + moztea + orraztu
aurrez txanda hartuta (943 75 22 43)**

39€

Lehen
48€

Deskontua
%19



Izena: _____

Tel: _____

BELARRAK

**Erregina-jelea defentsak indartzeko
eta animatzeko**

18,8€

Lehen
23,5€

Deskontua
%20



Izena: _____

Tel: _____

ETXABE HARATEGIA

Oilasko izterra

2,8€

Lehen
4,5€

Deskontua
%38



Izena: _____

Tel: _____

CRIADO FRUTADENDA

Hegaluzea oliba oliotan (2 pota)

5€

Lehen
6,5€

Deskontua
%23



Izena: _____

Tel: _____

Zozketa

60 euroko bono bat zozketatuko da hilero. Parte hartzeko, eskaintzaren bat kontsumitu behar da eta norbere datuekin betetako fitxa entregatu.

Abenduko zozketaren irabazlea: M^o Jesus Elgeta

NIK,
HERRIAN

